



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

2025 _ 2026

HAUR HEZKUNTZA LEHEN HEZKUNTZA

GRADUAK



www.mondragon.edu/hh

www.mondragon.edu/lh

www.mondragon.edu/hezkuntza-erdi-presentziala



XXI. mendeko hezkuntza-erronkei erantzuteko prest zaude?

Begiratu nahi diozu hezkuntzari ikuspegi eraldatzaile batetik?



HEZKUNTZA-EREDU BERRITZAILEA

Hezkuntza eredu berritzaile propioa topatuko duzu Mondragon Unibertsitatean: "Mendeberri 2025". Eredu honek profil profesionalean ez ezik, pertsonaren garapenean jartzen du indarra, XXI. mendeko desafio teknologiko, ekologiko eta sozialei aurre egiteko. Honako ezaugarriak izango dituen ikasleak hezi nahi ditugu "Mendeberri 2025" egitasmoarekin:



MUNDURA
IREKITA



IDENTITATE
ETA HELBURU
PERTSONALAK
IZANGO DITUENA



PERTSONA
KOOPERATIBOA



KOMUNIKATZAILEA
ETA KOMUNIKAZIO-
BIDERATZAILEA



IKASTUN
AKTIBOA



IKASTUN
MALGUA

Nola ikasiko duzu?

Metodologia aktiboen bidez ikasiko duzu eta horiek erabiltzen trebatuko zara. Hezkuntza graduatan ez duzu ikasgairik izango, **moduluetan** lan egingo duzulako eta lanbidetik hurbil dauden egoeretan murgilduko zarelako. **Eskolekin harreman** estua izango duzu; maiz egingo dituzu praktikak eta bisitak. **Talde lana** izango da zure ikaskuntza prozesuaren beste oinarri sendo bat. Diziplinarteko lanak prestakuntza integrala eskainiko dizu.

Zein ezaugarri ditu modulu batek?

- Moduluak **diziplinartekoak** dira; begirada eta arlo ezberdinetatik diseinatutakoak.
- Modulu bat abian dagoen bitartean, modulu horretan bakarrik jardungo zara. Erabateko arreta eskaini ahalko diozu lantzen ari zaren horri!
- Oso **praktikoak** dira moduluak eta etorkizuneko lanbidearekin lotura zuzena dute.
- Irakaslearen **bidelaguntza** izango duzu ikaste prozesu osoan.



Tutorea bidaide izango duzu

Zu izango zara ikaskuntza prozesuaren protagonista; zure garapen pertsonalaren eta profesionalaren ardura hartuko duzu. Garapen pertsonalean eta ezaugarri pertsonalen lanketan, tutorea izango da lau urteetan gertu izango duzun bidelaguna.

“Gure ikasketa-prozesua autoezagutzarekin hasi dugu, geure burua ezagutzen eta bertatik geure garapen pertsonalerako erronkak eta norabidea marrazten hasi gara. Guzti honetarako konfiantzazko tutorea daukagu bidelagun”.

LUCIA VILLACIAN ETA MAIALEN BIKUÑA
Haur Hezkuntzako ikasleak.

Praktikak eta alternantzia ereduak

Lehenengo mailatik hasita, aukera izango duzu lau urteetan praktikak egiteko Euskal Herriko hainbat ikastetxeetan, eta nahi izanda, bai estatuan bai atzerrian. Egingo dituzun praktikaldiek iraupen eta egitura desberdina izango dute; horietako praktika batzuk, aukeratutako aipamenarekin lotuak egongo dira. Praktikek aukera emango dizute bertatik bertara ezagutzeko irakaslearen lanbidea eta lanbide horren benetako testuingurua. Praktikaldiak gainera, baliagarri izango zaizkizu nolako hezitzailea izan nahi duzun hausnartzeko. Zure garapen pertsonalerako eta profesionalerako aberasgarriak izango dira tarte horiek.

Gainera, 4. mailan alternantzian arituko zara, hau da, praktikaldi garaian, astean 3 egun ikastetxean egingo dituzu eta 2 egun unibertsitatean.

Hezkuntza-berrikuntzan sakontzeko, Gradu Bukaerako Lana (GBL)

Laugarren mailan, hezkuntza-berrikuntza prozesu batekin lotutako Gradu Bukaerako Lana (GBL) egingo duzu. Azterlan akademiko sakon horren helburua da, beste batzuen artean, eskolaren erronka bati erantzutea eta harremana sustatzea ikaslearen eta hezkuntza-erakundearen artean.



Lortuko duzun profil pertsonala eta profesionala

Konpetentzia profesionalak jorratzeaz gain, gradu hauetan garrantzi handia hartzen dute garapen pertsonalak eta ezaugarri pertsonalen lanketak.

Zortzi ezaugarri pertsonal landuko dituzu graduotan:


- Euskalduna eta komunitatearekin konprometitua
- Sortzailea eta eraldatzailea
- Kooperatiboa eta justizia sozialera bideratua
- Kontzientzia eta komunikazio kulturarteko, multimodal eta eleaniztuna
- Norbere buruarekin eta lanbidearekin konprometitua
- Autonomia eta bizialdi osorako ikastuna
- Kritikoa eta analitikoa
- Ziurgabetasuna eta frustrazioa kudeatzeko gaitua



Konpetentzia profesionalei dagokionez, tradizionalki Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako irakasleak izan duen egitekoaz gain, konpetentzia profesionalak eskuratuko dituzu eskolak izango dituen erronka konplexuei aurre egiteko. Gainera, etengabeko prestakuntzaren premiaz eta hezkuntza eraldatzearen garrantziaz jabetuko zara.

Mugikortasuna

Europako eta Estatuoko hainbat unibertsitatetan egonaldiak egiteko aukera izango duzu. Europako egonaldiak Erasmus+ programaren baitan egingo dituzu eta Estatuokoak SICUE programaren baitan. Hortaz gain, Europatik kanpoko beste zenbait unibertsitatetan egonaldiak egin ahal izango dituzu eta horretarako, Eusko Jaurlaritzaren beka jaso dezakezu. Egondaldiez gain, praktikak ere egin ditzakezu Estatuan eta atzerriko hainbat herrialdeetan.



Unibertsitatea bizi!

Fakultateko campusetan aukera zabala dago kirolaz, kulturaz, eta oro har, aisialdiaz gozatzeko eta lankidetzako jardueretan aritzeko. Hezkuntza-proiektuko zati garrantzitsua dira kirol ekintzak, besteak beste, ikaslearen bizitza-kalitatea hobetzea dutelako helburu. Horretarako, Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen ditu ikastaroak, irteerak, unibertsitate txapelketak, etab. Horrez gain, aholkularitza eta material mailegurako zerbitzua ere eskaintzen du.

Punta-puntako instalazio eta baliabideak

Hezkuntza eredu berriari erantzuteko, punta puntako baliabideak ditugu: Eskoriatzako campus berria eta Bilbao AS Fabrik-eko eraikin berria. Eskoriatzako campusean aurkituko duzu, gainera, KoLaborategia, hezkuntza berrikuntzarako laborategia.

Aniztasunari erantzuteko arreta zerbitzua

Ikasle ez-tradizionalek dituzten premiei ahalik eta erantzun egokiena eman ahal izateko, orientazio eta laguntza emateko zerbitzua da. Ezaugarri fisiko, sentzorial, adimenezko zein psikikoengatik aukera berdintasunean mantentzeko zailtasunak izan ditzaketen ikasleei akonpainamendua egingo zaie zerbitzu honen bidez.

Arreta psikologikorako zerbitzua

Zerbitzuak izaera prebentiboa du, eta doakoa da. Ikasleen ongizatea bermatzeko helburuarekin, eta bidaidetza prozesu baten bidez, psikologo-psikoterapeuta kolegiatuak eskainiko diete arreta ikasleei.

Bekabide programa

Bekabide programarekin, Mondragon Unibertsitateak egokitzen ditu graduaren ordainketak ikaslearen eta bere familiaren ahalbide ekonomikoetara. Egitasmo honen helburua da arazo ekonomikoak ez daitezela izan oztopo unibertsitatean ikasteko.

Mondragon Unibertsitatean ikasteak ekarriko lituzkeen gastuak eta diru-sarrerak kontuan hartuta, kasuan kasuko azterketa egiten da; ondoren, erantzun pertsonalizatua ematen zaio:

- Interesik gabe.
- Lehenengo urtetik hasita.
- Konpromisorik gabe.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

bekabide.huhezi@mondragon.edu
943 71 31 39



Haur Hezkuntza

www.mondragon.edu/hh

0-6 urte bitarteko umeen irakaslea izan nahi baduzu, Haur Hezkuntza da aukeratu behar duzun gradua. Lehenengo haurtzaroarekin lan egiteko atea zabalduko dizu. Bizitzaren lehenengo urteak bereziki zaintzeko aukera izango duzu, bizi osorako gako diren urteak. Etapa honetan irakasle sortzaile eta eraldatzaileak behar dira. Horretan murgiltzeko aukera zabalduko dizu gradu honek.

1. maila					
	Hezitzailea izango naiz	0-6 urteko pertsona / guztientzako eskola	Eskola, hizkuntza, herria	Esperientzia hezitzaileak	Gaur egungo gizartearen analisi kritikoa
2. maila					
	Testuinguru anitzak	Behaketa eta ebaluaketa	Ikaskuntza eta garapena errazten hezitzailearen roletik	Gizarte eraldaketarako hezkuntza	Eskola hedatua Ni, zu, gu, gorputza gara
3. maila	  				
	Esperientzia didaktiko biziak	Aipamenak: - Haur Hezkuntza Orokorra - Atzerriko Hizkuntza - Entzumena eta Mintzaira (erdi-presentziala) - Psikomotrizitatea (erdi-presentziala)			
4. maila	  				
	Hezkuntza berrikuntzarako tresnak eta metodologiak	Umearen globaltasuna eta bere inplikazioak HHn	Hezkuntza berrikuntzan eragile-ikerlari	Gradu Bukaerako Lana	

 Praktiak

 Atzerriko esperientzia

Modulu batzuk ingelesez egiteko aukera izango duzu.

Lau aipamen aukeran:

Eskoriatzako campusean / Erdi-presentzialean

HAUR HEZKUNTZA OROKORRA.

Haurrekin esku-hartzeko irakasleak izan beharreko ezaugarri pertsonaletan sakonduko duzu aipamen honetan.

ENTZUMENA ETA MINTZAIRA.

Entzumena eta Mintzaira aipamen honek eskainiko dizkizu behar dituzun tresna eta baliabide guztiak erantzuteko ikasleek gelan izan ditzaketen hizkuntza eta komunikazio beharrei.

ATZERRIKO HIZKUNTZA.

Haur hezkuntzan testuinguru eleanitz eta kulturantzetara aritzeko kompetentzietan sakonduko dugu aipamen honetan, ingelesez.

PSIKOMOTRIZITATEA.

Aipamen honekin ezagutuko dituzu haurren garapen psikomotorearen gakoak eta ikasiko duzu behar horiei erantzuten. Gainera, trebatuko zara haurren mugimendu librea zein jolasa behatzen eta interpretatzen. Eta, jakina, landuko dituzu psikomotrizistek beharrezkoak dituzten hainbat gaitasun, esaterako, auto-hausnarketa eta umearekiko begirada sentikorra.

Haur Hezkuntza gradua amaitzerakoan, beharrezko baldintza guztiak beteta, eta Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 dekretuaren arabera, Hizkuntzen Europako erreferentzi bateratuko C1 maila baliokide den euskara ziurtagiria jasoko duzu.



“Gure ikasketa prozesuko protagonista gara ikasleak eta aukera daukagu modu praktiko eta dinamikoan ikasteko. Gainera, prozesu osoan zehar irakasleak gure bidelagunak dira. Hau bermatzeko 1. mailatik hasten gara praktikak egiten errealitatearekin harreman zuzena izateko hasieratik”.

URKO BARRUTIA ARANZABAL

Haur Hezkuntzako ikaslea.



INFORMAZIOA

Kreditu kopurua: 240 ECTS.

Iraupena: 4 urte.

Hizkuntza: euskara, gaztelania eta ingelesa.

Prezioa: 6.300 €, 1. maila. (60 ECTS).

Tokia: Eskoriatza.

Koordinatzaileak: Itziar Arregi, Edurne Galindez eta Aritz Sanchez.

Harremanetarako:

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

943 71 3139

Lehen Hezkuntza

www.mondragon.edu/lh

6-12 urte bitarteko haurren irakaslea izan nahi baduzu, Lehen Hezkuntza da aukeratu behar duzun gradua. Hezkuntzaren etapa honetako ikasleen garapenean bidelagun izateko formazioa jasoko duzu. Irakasle kritiko eta sortzaile gisa egungo zein etorkizuneko hezkuntzaren erronkei erantzuteko prestatuko zara. Gradua Bilbao AS Fabriken edo Eskoriatzako campusean egiteko aukera izango duzu, eta 6 aipamen izango dituzu aukeran.

1. maila	 Hezitzailea izango naiz 6-12 urteko pertsona / guztientzako eskola Eskola, hizkuntza, herria Esperientzia hezitzaileak Gaur egungo gizartearen analisi kritikoa
2. maila	 Alfabetizazio anitzak Esperimentazioa ingurune natural eta sozialetan STEM eta ikaskuntza sakona Gizarte eraldaketarako hezkuntza Eskola hedatua Ni, zu, gu, gorputza gara
3. maila	 Esperientzia didaktiko biziak Aipamenak: - Lehen Hezkuntza Orokorra - Heziketa Berezia - Atzerriko Hizkuntza - Heziketa Fisikoa - Berrikuntza Digitala - Entzumena eta Mintzaira (erdi-presentziala)
4. maila	 Hezkuntza Berrikuntzarako tresnak eta metodologiak  Diziplinartekotasunetik antidizipline-tara Hezkuntza berrikuntzan eragile-ikerlari  Gradu Bukaerako Lana

 Praktiak

 Atzerriko esperientzia

Modulu batzuk ingelesez egiteko aukera izango duzu.

Sei aipamen aukeran:

Eskoriatzako campusean / Bilbao AS Fabrik campusean / Erdi-presentzialean

LEHEN HEZKUNTZA OROKORRA

Tutore gisa ikasle, familia zein hezkuntza komunitatearekin elkarlanean aritzeko konpetentziak garatzeko testuinguru eta esperientziak eskainiko dizkizu aipamen honek.

HEZIKETA BEREZIA

Ikasle guztien ikaskuntza eta parte-hartzea erraztuko duten testuinguruen eraikuntzarako gaitasunak landuko dituzu.

BERRIKUNTZA DIGITALA

Ikaskuntza-irakaskuntzan berrikuntza prozesuak martxan jartzeko irakasleek izan beharreko konpetentzia digitalak garatzeko dituzu aipamen honekin, teknologia digitalak ikas-prozesuan modu kritikoan integratzeko eta diseinu teknopedagogikoan sakontzeko.

HEZIKETA FISIKOA

Garapen fisiko eta motorretik abiatuz, ikaslearen garapen osoan lagunduko duen irakaslea izateko formazioa jasoko duzu aipamen honetan.

ATZERRIKO HIZKUNTZA

Atzerriko hizkuntzaren irakaskuntzan jarduteko formazio jasoko duzu aipamen honetan eta bereziki, testuinguru eleanitz eta kulturantzetan irakasle izateko espezializatuko zara.

ENTZUMENA ETA MINTZAIRA.

Entzumena eta Mintzaira aipamen honek eskainiko dizkizu behar dituzun tresna eta baliabide guztiak erantzuteko ikasleek gelan izan ditzaketan hizkuntza eta komunikazio beharrei.

Lehen Hezkuntza gradua amaitzerakoan, beharrezko baldintza guztiak beteta, eta Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 dekretuaren arabera, Hizkuntzen Europako erreferentzi bateratuko C1 maila baliokide den euskara ziurtagiria jasoko duzu.



“Gaiak lantzeko dugun modua azpimarratuko nuke, talde lanean eta moduluen bidez egiten baitugu lan, hau da, ez dugu ikasgairik eta diziplinartekotasunari ematen diogu garrantzia. Oso modu praktikoan, begirada eta arlo ezberdinak lantzeko aukera ematen digute, beti ere, etorkizuneko lanbidearekin lotura eginaz”.

LEIRE DIAZ MONTOYA

Lehen Hezkuntzako ikaslea



INFORMAZIOA

Kreditu kopurua: 240 ECTS.

Iraupena: 4 urte.

Hizkuntza: euskara, gaztelania eta ingelesa.

Prezioa: 6.300 €, 1. maila. (60 ECTS).

Tokia: Eskoriatza eta Bilbao AS Fabrik.

Koordinatzaileak: Itziar Arregi, Edurne Galindez eta Aritz Sanchez

Harremanetarako:

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

943 71 31 39

BIGARREN AIPAMENAK ETA BIGARREN GRADUAK

ETA GRADUA BUKATU ONDOREN...

...lortu bigarren aipamen bat edo bigarren gradu bat!

Bigarren aipamen bat Hezkuntzan *sei hilabetea!*

AIPAMENAK

Haur Hezkuntza ikasi baduzu...

- Atzerriko Hizkuntza.
- Entzumena eta Mintzaira.
- Psikomotrizitatea.

Lehen Hezkuntza ikasi baduzu...

- Atzerriko Hizkuntza.
- Heziketa Berezia.
- Heziketa Fisikoa.
- Entzumena eta Mintzaira.
- Berrikuntza Digitala.

Bigarren gradu bat Hezkuntzan *urte eta erdian!*

GRADUAK

Haur Hezkuntza ikasi baduzu...

Lehen Hezkuntza gradua ondorengo aipamenarekin:

- Lehen Hezkuntza Orokorra.
- Atzerriko Hizkuntza.
- Heziketa Berezia.
- Heziketa Fisikoa.
- Entzumena eta Mintzaira.
- Berrikuntza Digitala.

Lehen Hezkuntza ikasi baduzu...

Haur Hezkuntza gradua

- Haur Hezkuntza Orokorra.
- Atzerriko Hizkuntza.
- Entzumena eta Mintzaira.
- Psikomotrizitatea.

Modalitatea:

- Erdi-presentziala (online + saio presentzialak).
- Tutoretza saioak.
- Practicum presentziala.



Gradu osoa modalitate erdi-presentzialean

Eta **aurretik** goi-mailako **ikasketak** badituzu, **kirolari** profesionala bazara edo **goi-mailako heziketa ziklo** bat baduzu hezkuntzan... **egin Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduak modalitate erdi-presentzialean!**

Norentzat:

- Aurretik goi-mailako edozein ikasketa eginda dituztenentzat.
- Helduentzako unibertsitateko sarrera-proba gainditu dutenentzat.
- Hezkuntza alorreko Goi-Mailako Heziketa Zikloa dutenentzat.
- Goi-mailako kirolarientzat.

Modalitatea:

- Erdi-presentziala (online + saio presentzialak).
- Tutoretza saioak.
- Practicum presentziala.

Haur eta Lehen Hezkuntza gradua amaitzerakoan, beharrezko baldintza guztiak beteta, eta Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 dekretuaren arabera, Hizkuntzen Europako erreferentzi bateratuko C1 maila baliokide den euskara ziurtagiria jasoko duzu.



“Gradua modu erdi presentzialean egitea esperientzia polita izaten ari da niretzako. Hiru urteko haur bat dut eta familia eta lana kontuan izanik, ezinezkoa litzaidake gradu osoa modu presentzialean egitea. Abantaila asko dituela uste dut; izan ere, etxean egiteak norberaren autonomia eta exigentzia maila uztartzen ditu. Gainera, bi astetik behin, gainontzeko gelakideekin partekatu egiten dituzu ideiak, zalantzak eta ekarpenak, eta horrek modulua aberasten du. Ez dut gezurrik esango, ez da erraza eta lana egin beharra dago, baino orain hiru urte hasitako ibilbide honek merezi duela uste dut”.

IRUNE LAZKANO

Erdi-presentzialeko ikaslea



INFORMAZIOA

www.mondragon.edu/hezkuntza-erdi-presentziala

Iraupena:

- Bigarren aipamena: 6 hilabete.
- Bigarren gradua: Urte eta erdi, kasuaren arabera.
- Gradu osoa: 4 urte.

Prezioa:

- Gradu osoa erdi-presentzialean: Sarrera kuota: hartutako kredituen arabera. 84 € ECTS bakoitzeko.
- Bigarren gradua eta bigarren aipamena: Sarrera kuota: 900 €. 96 € ECTS bakoitzeko.

Hizkuntza: euskara, gaztelania eta ingelesa.

Tokia: online eta Eskoriatza.

Koordinatzaileak: Itziar Arregi, Edurne Galindez eta Aritz Sanchez.

HARREMANETARAKO:

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu
943 71 31 39



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

HEZKUNTZA

Dorleta z/g
20540 ESKORIATZA
Gipuzkoa

Bilbao AS Fabrik
Olagorta kalea, 26 da.
48014 BILBO
Bizkaia

943 71 31 39
idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu

ENTITATE LAGUNTZAILEAK

